

2025-2026 IKASTURTEA JANGELA ZERBITZUA

BATXILERGOA

2025-05-30

2025-2026ko zerbitzuak modu egokian antolatu ahal izateko, ezinbestekoa zaigu gure ikasleek egingo duten erabileraren aurreikuspena izatea. Datorren ikasturtea **irailaren 8an** hasiko da (aurkezpena).

Ikastolak eskaintzen dituen zerbitzuak hauek dira:

JANGELA

Ikasle guztiek aukera izango dute urte osoan erabiltzeko, egunero edo astean hiru egunetan. Eguneko txartelak erosteko aukera ere egongo da. Ekainean EZ dago jangela zerbitzurik (**maiatzean ez da bajarik onartuko**).

		Ikasturte osoa (irailetik maiatzera)
JANGELA	Egunero	104,50 € hilean
	Astean 3 egun	67,60 € hilean
	Eguneko txartela	8,60 €

Prezio hauek 2024-25 ikasturtekoak dira eta ez dira behin betikoak. Zerbitzuen erabilera eta prezioen eboluzioaren arabera alda daitezke nahiz eta gure helburua bere horretan mantentzea den.

Oharrak

- Zerbitzuren batean baja edo alta eman nahi izanez gero, aurreko hilabetea amaitu aurretik idazkaritzan jakinarazi behar dela (emailaz). Ez dira hilabete bakarreko bajarik onartuko, ez eta bajak eta altak ematen aritzea ere. Zerbitzuak ikasturte amaiera arte dira **eta maiatzean ezin dira bajarik eman**. Jangelako zerbitzuan baja ematen duten ikasleek, txartel bidez zerbitzua erabili ahal izango dute, beti ere, astean bitan baino gehiago ez bada, eta zerbitzua noiz erabiliko den astebeteko aurrerapenarekin adierazten badute.
- Erantzunak jasotzeko azken eguna **ekainaren 16a** izango da, ikasle guztiek bete beharrekoa, zerbitzuak interesatu ala ez.



ZERBITZUETAN IZENA-EMATEA

ZUZENDARITZA

